



**2016KO OTSAILAREN 23KO**  
**OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaseiko otsailaren hogeita hiruan, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Ane Irastortza Izagirre Lehen Alkate Ordearen lehendakaritzapean, Felix Urkola Iriarte Alkatearen ezin etorria dela medio eta honek bere ordezkapenerako ebazpena egin ondoren, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Aitor Altuna Oiarbide, Begoña Bueno Barranco, Iñaki Estensoro Sarasola, Amagoia Naldaiz Mingo, Jabier Arrasate Aierbe, Azeari Andonegi Beristain, Ioseba Hernandez Madinabeitia, Marian Zufiria Apeztegia, Joseba Imanol Aran Barandiaran, Leire Mendia Arana eta Urtzi Iruin Arruti.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Lehen Alkate Ordeak bilkurari hasiera eman ondoren, mozio baten aurkezpenaren berri ematen du. Esaten du mozio hori, Feminismotik eraldaketa sozialera izenburupean, EH Bilduren izenean aurkeztu dela gaur goizean bertan eta beraz eguneko gai zerrendatik kanpo dagoela.

Hau honela, mozio honek presazko izaera duen ala ez eta beraz osoko bilkura honetan tratatu ala ez erabakitzeko bozketan jartzen da eta Lehen Alkate Ordeak (EAJ) esaten du beraiek aurka bozkatuko dutela, mozia aztertzeke betarik izan ez dutelako eta ez diotelako presazko izaera hori ikusten.

Gaia bozketan jartzen da eta emaitza honako hau da: aldeko 6 botu (EH Bildu) eta aurkako 6 botu (EAJ), eta Lehen Alkate Ordeak bere kalitate botua erabiltzen du, ezezko botoa. Hau honela mozia ez tratatzea erabakitzen da.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Ondoren, bertaratutakoen onspenera aurkezten da 2016ko urtarrilaren 26an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-**

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

**III.- KALE GARBIKETAKO KONTRATUAREN ESLEIPENA.-**

Udal Osoko Bilkurak, 2015eko urriaren 27an hartutako akordio bidez, Lazkaoko kale garbiketa zerbitzua prozedura irekiz eta lehiaketa bidez esleitzeko kontratazio espediente onartu eta lehiaketarako deialdia egitea erabaki zuen.



Lizitazio deialdiaren iragarkia 2015eko azaroaren 13ko 218 zbk.dun Gipuzkoako Al-dizkari Ofizialean argitaratu zen.

Eskaintzak aurkezteko epean ondorengo proposamen hauek aurkeztu dira:

- 1.- SERBITZU ELKARTEA, SL
- 2.- FCC
- 3.- TRAECO MEDIOAMBIENTAL, SL
- 4.- DISTRIVISUAL, SL
- 5.- BROCOLI, SL ETA GRUPO SIFU EUSKADI, SL

Proposamen guztiak izan dira onartuak.

Balio-judizio baten menpeko erizpideen balorazioa egiteko dokumentazioa jasotzen duten B kartazalak 2015eko abenduaren 18an jendaurrean ireki ziren.

B kartazalak jasotzen duten dokumentazioaren azterketa egin ondoren honako puntuak eman zaie enpresei:

ENPRESA	PUNTUAK
FCC	37,50
ZERBITZU ELKARTEA SL	35,00
TRAECO MEDIOAMBIENTAL SL	44,50
DISTRIVISUAL SL	19,50
BROCOLI SL / GRUPO SIFU EUSKADI SL	30,00

2016ko otsailaren 10an, goizeko bederatzia eta erdietan, proposamen ekonomikoa duten C kartazalak jendaurrean irekitzea egin zen. C Kartazalak ireki aurretik B kartazalen balorazioaren berri eman zen.

Enpresek aurkeztutako ekonomi proposamenak honako hauek izan dira:

ENPRESA	"C" SOBREA (54 puntua)				
	Eskeintza ekonomikoa	Baldeo mekanikoa	Lansai arrunta ordua	Jaiegun lansai ordua	Gaueko lansai ordua
FCC	349.090,91	61,60	28,91	34,48	30,61
Serbitzu Elkartea SL	394.702,40	69,00	32,00	37,00	35,00
Traeco Medioambiental SL	340.000,00	59,00	25,00	29,00	27,00
Distrivisual SL	373.220,50	66,50	31,35	36,81	34,20
Brocoli SL / Grupo Sifu SL	346.325,59	60,61	28,57	33,55	31,17

Eta ondorioz guztizko puntuaketa honela gelditu da:



Enpresa	"B" SOBREA (46 puntua)	"C" SOBREA (54 puntua)					GUZTIRA
		Eskeintza ekonomikoa	Baldeo mekanikoa	Lansai arruntaren ordua	Jaieguneko lansaiaren ordua	Gaueko lansaiaren ordua	
		Puntuak	Puntuak	Puntuak	Puntuak	Puntuak	
FCC	37,50	48,48	0,00	0,00	0,00	0,00	85,98
Serbitzu SL	35,00	35,83	0,75	0,00	0,00	0,00	71,58
Traeco SL	44,50	51,00	0,00	0,75	0,75	0,75	97,75
Distrivisual SL	19,50	41,79	0,00	0,00	0,00	0,00	61,29
Ute brocoli SL	30,00	49,25	0,00	0,00	0,00	0,00	79,25

TRAECO MEDIOAMBIENTAL S.L.-k, lehen sailkatu gisa, behin betiko fidantza jarri du eta baldintza pleguan finkatzen den dokumentazioa ere jarrita du.

Honen aurrean, kontratazio mahaiak, TRAECO MEDIOAMBIENTAL S.L. enpresaren aldeko esleipen proposamena egin du.

Andonegi zinegotziak (EH Bildu) esaten du beraiek gai honetan zerbitzu hau ematean publikotasunaren inguruko eztabaida egitea eskatu zutela eta ez dela egin eta beraien abstenitu egingo direla.

Guzti honen aurrean, Osoko Bilkurak, aldeko 6 botu (EAJ), aurkako boturik gabe eta 6 abstentzioz (EH Bildu), honako akordioak hartzen ditu:

- 1.- Lazkaoko kale garbiketa zerbitzuaren esleipena TRAECO MEDIOAMBIENTAL S.L. enpresaren alde egitea.
- 2.- Esleipen honen jakinarazpena prozedura irekian parte hartu duten enpresa guztiei jakinaraztea, eta aldi berean udalaren kontratatzailearen profilean argitaratzea.

#### IV.- LOKALEN GARBIKETA KONTRATUAREN ESLEIPENA.-

Udal Osoko Bilkurak, 2015eko urriaren 27an hartutako akordio bidez, Lazkaoko Udalaren eraikinen garbiketa zerbitzua prozedura irekiz eta lehiaketa bidez esleitzeko kontratazio espedientea onartu eta lehiaketarako deialdia egitea erabaki zuen.

Lizitazio deialdiaren iragarkia 2015eko azaroaren 13ko 218 zbk.dun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Eskaintzak aurkezteko epean ondorengo proposamen hauek aurkeztu dira:

- 1.- GUREAK GARBITASUNA S.L.U.
- 2.- EULEN, SA
- 3.- KELSALIM ZERBITZUAK, SL
- 4.- ZAINZEN, SA
- 5.- DISTRIVISUAL, SL
- 6.- BROCOLI, SL ETA GRUPO SIFU EUSKADI, SL

Aurkeztu diren proposamen guztiak izan dira onartuak



Balio-judizio baten menpeko irizpideen balorazioa egiteko dokumentazioa jasotzen duten B kartazalak 2015eko abenduaren 18an jendaurrean ireki ziren.

B kartazalak jasotzen duten dokumentazioaren azterketa egin ondoren honako puntuak eman zaie proposamenei:

ENPRESA	PUNTUAK
GUREAK GARBITASUNA S.L.U.	36,07
EULEN SA	36,23
KELSALIM ZERBITZUAK SL	32,77
ZAINTZEN SA	32,28
DISTRIVISUAL SL	24,18
BROCOLI SL / GRUPO SIFU EUSKADI SL	27,25

2016ko otsailaren 10an, goizeko bederatzietan, proposamen ekonomikoa duten C karta azalak jendaurrean irekitzea egin zen. C Kartazalak ireki aurretik B kartazalen balorazioaren berri eman zen.

Enpresek aurkeztutako ekonomi proposamenak honako hauek izan dira:

Enpresa	C SOBREA (51 puntu)			
	Eskeintza ekonomikoa	Lansai arrunta ordua	Jaiegun lansai ordua	Gaueko lansai ordua
Gureak Garbitasuna SLU	175.476,72	13,74	17,18	17,18
Eulen SA	205.817,01	16,76	18,44	18,44
		17	18,7	18,7
Kelsalim SL	206.663,85	16,98	18,5	18,5
Zaintzen SA	182.188,02	14,88	16,37	16,37
Distrivisual SL	204.698,26	17,28	18,98	18,98
UTE Brocoli-Grupo Sifu SL	186.344,67	12	14	13

Eta ondorioz guztizko puntuaketa honela gelditu da:

Enpresa	B SOBREA (49 puntu)	C SOBREA (51 puntua)				GUZTIRA
		Eskeintza ekonomikoa	Lansai arruntaren ordua	Jaieguneko lansaiaren ordua	Gaueko lansaiaren ordua	
		Puntuak	Puntuak	Puntuak	Puntuak	
Gureak Garbitasuna SLU	36,07	48,00	0,00	0,00	0,00	84,07
Eulen SA	36,23	32,32	0,00	0,00	0,00	68,55
			0,00	0,00	0,00	
Kelsalim SL	32,27	31,89	0,00	0,00	0,00	64,16
Zaintzen SA	32,28	44,53	0,00	0,00	0,00	76,81
Distrivisual SL	24,18	32,90	0,00	0,00	0,00	57,08
UTE Brocoli-Grupo Sifu SL	27,25	42,38	1,00	1,00	1,00	72,63



GUREAK GARBITASUNA S.L.U.-k, lehen sailkatu gisa, behin betiko fidantza jarri du eta baldintza pleguan finkatzen den dokumentazioa ere jarrita du.

Honen aurrean, kontratazio mahaiak, GUREAK GARBITASUNA S.L.U. enpresaren aldeko esleipen proposamena egin du.

Andonegi zinegotziak (EH Bildu) esaten du beraiek gai honetan zerbitzu hau ematean publikotasunaren inguruko eztabaida egitea eskatu zutela eta ez dela egin eta beraiek abstenitu egingo direla.

Guzti honen aurrean, Osoko Bilkurak, aldeko 6 botu (EAJ), aurkako boturik gabe eta 6 abstentziaz (EH Bildu), honako akordioak hartzen ditu:

- 1.- Lazkaoko Udalaren ereikinen garbiketa zerbitzuaren esleipena GUREAK GARBITASUNA S.L.U. enpresaren alde egitea.
- 2.- Esleipen honen jakinarazpena prozedura irekian parte hartu duten enpresa guztiei jakinaraztea, eta aldi berean udalaren kontratatzailearen profilean argitaratzea.

#### V.- BAKE EPAILEAREN AUKERAKETA.-

Euskal Herriko Justizi Auzitegi Nagusiko Gobernu-Idazkaritzatik idatzia jaso da Bake Epailera izendatu zenetik lau urteko epea amaitzear dagoela eta Osoko Bilkurak Bake Epaila titular eta ordezeko karguetarako aukeraketa egin dezan eskatuz.

Hau honela deialdi irekia egin da, herrian zehar hala nola Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkiak jarritz, kargu hauetarako interesatuek beraien izena Udaletxean eman zezaten eskatuz.

Honen ondorioz herritar bakarra izan da karguan interesatuta bere izena eman duena.

Bere izena eman duen pertsona bakarra ondorengoa da eta bere xehetasun pertsonalak bere espedientean jasotzen dira:

- Iker Imaz Beldarrain

Izena eman duen laguna bakarra izanik eta bere eskaria aztertu ondoren, bake epaile titularretarako Iker Imaz Beldarrain jauna izendatzearen aldeko proposamena aurkezten da osoko bilkura honetara.

Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, bozketan jartzen du bake epailearen hautaketa eta bertaratutako guztien aldeko botuekin, 12 boto, eta beraz udal osoko bilkuraren gehiengo osoaren aldeko botoarekin, udal osoa guztira hamahiru lagun direla kontuan izanda, Iker Imaz Beldarrain jauna Lazkaoko Bake Epaila izendatzeko proposamena onartzea erabakitzen du.

#### VI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-



Hernandez zinegotziak (EH Bildu) gaur aurkeztu duten mozioaren inguruko hainbat adierazpen egiten ditu.

Lehen Alkate Ordeak (EAJ) erantzun egiten dio.

**VII.- BILERAREN AMAIERA.-**

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Mahaiburuak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak eta hogeita hamahiru direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

